

Armanak Uskara

edo

Z

iberouko Egunaria

1912 betharras ourtheke

Jinkoa eta Herria!
Zuhurlarżuna eta lana!
Eta bizi bethi Uskalduna!
Iao! Iao!

I-a-a-a-a-o-o-o-o-o!

SALTZEN DA

Maolen

TEILLAGORRY enian

Atharratzen

MENDIONDO-SANTZ enian

Prezioa : SOS BAT



BEGITHARTE HORIEK :

- ☉ *erran nahi da* : Estiapen hastia *edo* argizagi oso.
☽ " Argizagi azken laordena.
● " Gorapen hastia *edo* argizagi berri.
☽ " Argizagi lehen laordena.
-

OURTHEKO BESTA ALDAKORRAK :

SETUAJESIMO, *barant*haila 4^{an} ; — HAOSTE, *barant*haila 21^{an} ;
— BAZKO, *aphirila* 7^{an} ; — ERROGAZONIAK, *maiatze* 13^{an},
14^{an} eta 15^{an} ; — SALBATORE, *maiatze* 16^{an} ; — PHENTEKOSTE,
maiatze 26^{an} ; — BESTABERRI, *arramaiatz*e 6^{an} ; — ABENTUKO
LEHEN IGANTIA, *abentu* 1^{an}.

LAOR THENPORAK :

Barant. 28 ⁿ , Martcho, 1 ⁿ eta 2 ⁿ .	Buruila 18 ⁿ , 20 ⁿ eta 21 ⁿ .
Maiatz 29 ⁿ , 31 ⁿ eta arram. 1 ⁿ .	Abentu 18 ⁿ , 20 ⁿ eta 21 ⁿ .

EKHI ETA ARGIZAGI ULHUNTZIAK :


Argizagi itzalze phartezkoa *aphirila* 1^{an}. hobekienik ikhousiren dena Uskal Herrian arratseko 10 oren eterditan ; — bestebat buruila 25^{an}, ikhous ahal eztirokiena.

Ekhi itzalze osoa, ikhousiren diena Uskal Herrian *aphirila* 17^{an}, goizeko 9 oren etarik aitzina ; — bestebat, osoa *houra* ere, bena ezin ikousiren dena *goure* herrian.







HANITCH KHASU HOUNI



ZIBEROUKO armanaka eginik da bi kartillaz algarreki josirik. Lehena, mehe mehia, hamabi hilabeteren egunaria dena, ourthiaren urhentzian berheztekoa da nahidenaren egiteko. Bigerren kartilla edo phartia, mintzo dena istoriaz, aholku hounez laboriarentako, errezetaz, etc., harek ourthe oroz behar du begiratu arrankurareki. Hollak markaturik dutu bost ourthez arrount. Bostgerren arraldia, diala laor ourthe hasirik aorthen urhentzen da.



AZKEN BOST OURTHETAKO ARMANAKEN EDIRENGIA



Hamabost mila libera	1
Zer irakourten dugun	3
Daigun maiatzako boskak	10
Otomobilez... Jinkoa ganat	25
Lamiñen denboran	27
Gobernamentuko eskolez	29
Frantziako aphezkupien Guthuna eskoletzaz aiphu	49
Populia errege ?	60
Bi galtho jakitanter	62
Legia lege	73



Amerika eta hiriak eitzirik, hobe dela sor lekhian egoitia.....	79
Nahi dudanaren gogoan eroaitera haizu niz.....	82
Miliouen dantza.....	90
Joana d'Ark dohatsia.....	97
Zer diren eskoletako legiak mundian.....	107
Elizaren zuzenak.....	111
Igantiaren haostiaz.....	115
Laborantchaz :	
Scories edo grisa sorhoentako.....	13
Lur sagar eskutatzia.....	17
Noula zourrak begira tzustotzetik.....	19
Eznagiak (edo : laiteries cooperatives).....	36
Zokholer.....	41
Ogi azia.....	63
Lur sagarra.....	66
Istoria eta erasi, 20, 48, 68, 94,.....	116





OURTHARILA

Egunak luzatzen dira oren batez.




- ⓔ *e. h.*, 4ⁿ, arrastiriko oren eterditⁿ.
- ⓕ *a. l.*, 11ⁿ, goizanko 7^{or} eta 43^m.
- ⓖ *g. h.*, 19ⁿ, goizanko 11^{or} eta 40^m.
- ⓓ *l. l.*, 27ⁿ, goizanko 8^{or} eta 52^m.

BARANTHAILA

Eg. luzatzen dira oren I eta erdiz.



- ⓔ *e. h.*, 2ⁿ, arrastseko 11^{or} eta 58^m.
- ⓕ *a. l.*, 10ⁿ, gaiherdi eta 51^m.
- ⓖ *g. h.*, 18ⁿ, goizanko 5^{or} eta 45^m.
- ⓓ *l. l.*, 25ⁿ, arratseko 7^{or} eta 28^m.



1 Astelehen.	ZIRKONZISION.	1 Ostegun.	s. Inazio.
2 Asteharte.	s. Makari.	2 Ostirale.	KHANDERALLU
3 Astizken.	sa Jenevieva.	3 Neskanegun.	s. Blasi.
4 Ostegun.	s. Kigobert.	4 Igante.	<i>Setuajesimo.</i>
5 Ostirale.	s. Telesforo.	5 Astelehen.	sa Agata.
6 Neskanegun.	APHARIZIO.	6 Asteharte.	sa Dorotea.
7 Igante. 1.	sa <i>Melania.</i>	7 Astizken.	s. Romual.
8 Astelehen.	s. Luzien.	8 Ostegun.	s. Johane Mat.
9 Asteharte.	s. Julien.	9 Ostirale.	sa Apolina.
10 Astizken.	s. Marzien.	10 Neskanegun.	sa Eskolaztika.
11 Ostegun.	s. Teodoso.	11 Igante.	<i>Setsajesimo.</i>
12 Ostirale.	sa Taziena.	12 Astelehen.	A. B. Lourdako.
13 Neskanegun.	J. K. Batheia.	13 Asteharte.	s. Jilbert.
14 Igante. 2.	s. <i>Hilera.</i>	14 Astizken.	s. Valenti.
15 Astelehen.	s. Phaole, erm.	15 Ostegun.	s. Faosti.
16 Asteharte.	s. Marzel.	16 Ostirale.	sa Julieta.
17 Astizken.	s. Antoni.	17 Neskanegun.	sa Hiji.
18 Ostegun.	J. Phetr. Err. Jartia	18 Igante.	<i>Kinkajesimo.</i>
19 Ostirale.	s. Kanut.	19 Astelehen.	s. Konrad.
20 Neskanegun.	s. Fabien eta Sebast.	20 Asteharte.	s. Euche.
21 Igante. 3.	sa <i>Agnes.</i>	21 Astizken.	HAOSTE.
22 Astelehen.	s. Bizente.	22 Ostegun.	J. Petir. Ant. Jart.
23 Asteharte.	A. B. Ezkontz.	23 Ostirale.	s. Petiri Dam.
24 Astizken.	s. Timote.	24 Neskanegun.	J. MATHIAS. ap.
25 Ostegun.	J. Phaoler. kon.	25 Igante.	GOROZUM, 1 ^a .
26 Ostirale.	s. Polykarpe.	26 Astelehen.	sa Batilda.
27 Neskanegun.	s. Johane Kris.	27 Asteharte.	s. Zesaire.
28 Igante. 4.	s. <i>Amadeo.</i>	28 Ast. IV. Th. B.	s. Rufi.
29 Astelehen.	s. Franz. Sal.	29 Ostegun.	s. Dosite.
30 Asteharte.	s. Martina.		
31 Astizken.	s. Petiri Nol.		



MARÇHOVA edo OSTAROUA

Egunak luzatzen dira 2 orenez.




- ☉ *e. h.*, 3ⁿ, goizeko 10^{or} eta 42^m.
- ☽ *a. l.*, 10ⁿ, arratseko 7^{or} eta 56^m.
- ☿ *g. b.*, 18ⁿ, arratseko 10^{or} eta 6^m.
- ♃ *l. l.*, 26ⁿ, goizeko 3^{or} eta 2^m.

APHIRILA edo JORRAILA

Eg. luzatzen dira oren 1 eta erdiz.



- ☉ *e. h.*, 1ⁿ, arratseko 10^{or} eta 5^m.
- ☽ *a. l.*, 9ⁿ, arrastiriko 3^{or} eta 24^m.
- ☿ *g. b.*, 17ⁿ, goizeko 11^{or} eta 41^m.
- ♃ *l. l.*, 24ⁿ, goizeko 8^{or} eta 48^m.



- | | |
|--------------------------|------------------------------------|
| 1 Ost. <i>IV Th. B.</i> | s. I EON, Baion. |
| 2 Nesk. <i>IV Th. B.</i> | s. Zinplize. |
| 3 Igante. | <i>Gorozumako</i> , 2 ^a |
| 4 Astelehen. | s. Kasimis. |
| 5 Asteharte. | s. Teofile. |
| 6 Astizken. | s ^a Koleta. |
| 7 Ostegun. | s. Tomas Akin |
| 8 Ostirale. | s. Johane J. |
| 9 Neskanegun. | s ^a Frantzes. |
| 10 Igante. | <i>Gorozumako</i> , 3 ^a |
| 11 Astelehen. | s. Konstanti. |
| 12 Asteharte. | s. Gregori handia. |
| 13 Astizken. | s ^a Ufrasia. |
| 14 Ostegun. | s ^a Matilda. |
| 15 Ostirale. | s. Zakaria. |
| 16 Neskanegun. | s. Abraham. |
| 17 Igante. | <i>Gorozumako</i> , 4 ^a |
| 18 Astelehen. | J. Gabriel, ark. |
| 19 Asteharte. | s. JOSEPH. |
| 20 Astizken. | s. Joakim. |
| 21 Ostegun. | s. Benedic. |
| 22 Ostirale. | s ^a Riktruda, usk |
| 23 Neskanegun. | s. Viktorien. |
| 24 Igante. | PASIONIA. |
| 25 Astelehen. | Anontziazionia. |
| 26 Asteharte. | s. Braulio. |
| 27 Astizken. | s. Aletsandre. |
| 28 Ostegun. | s. Gontran. |
| 29 Ostirale. | s. Jonas. |
| 30 Neskanegun. | s. Amadeo. |
| 31 Igante. | ERRAMU. |

- | | |
|----------------------|--------------------------------|
| 1 Astelehen. | s. Hugon. |
| 2 Asteharte. | s. Franzes P. |
| 3 Astizken. | s. Richart. |
| 4 Ostegun. | <i>Osteg</i> , <i>Saintu.</i> |
| 5 Ostirale. | <i>Ostir</i> , <i>Saintu.</i> |
| 6 Neskanegun. | <i>Neskan</i> , <i>Saintu.</i> |
| 7 Igante. | BAZKO. |
| 8 Astelehen. | s. Albert. |
| 9 Asteharte. | s. Akasio. |
| 10 Astizken. | s. Fulbert. |
| 11 Ostegun. | s. Leon hand. |
| 12 Ostirale. | s. Jules. |
| 13 Neskanegun. | s ^a Hermeneg. |
| 14 Igante. 1. | s. Justein. |
| 15 Astelehen. | s ^a Anasztazia. |
| 16 Asteharte. | s ^a Engrazia. |
| 17 Astizken. | s. Anizet. |
| 18 Ostegun. | s. Perfet. |
| 19 Ostirale. | s. Leon IX. |
| 20 Neskanegun. | s. Teotimo. |
| 21 Igante. 2. | s. Anselmo. |
| 22 Astelehen. | s. Soter. |
| 23 Asteharte. | s. Jeorgi. |
| 24 Astizken. | s. Fidel. |
| 25 Ostegun. | J. MARK, Eb. |
| 26 Ostirale. | s. Clet eta Mar. |
| 27 Neskanegun. | s. Zerazio. |
| 28 Igante. 3. | <i>J. Paule</i> , <i>Khur.</i> |
| 29 Astelehen. | s. Petiri, m. |
| 30 Asteharte. | s ^a Katalina, S. |



JOANA D'ARK DOHATSIA (1412-1912)



URTHENKO ourtharilaren 6^{an}, Apherizio egunian, eginen du bost ehun ourthe *Joana d'Ark* sortu zela Domrémy deithu herri-riska batetan.

Haren aita amak laborari ziren eta etchalte tchipi bat joanerazten zien. Aita deitzen zen *Jacques d'Ark*, ama aldiz *Isabela Romée*; biak beren erreligionari, beren herriari eta beren laborantchako estatiari zinez etchekiak.

Aitak amets egin zian, bere alhaba Joana, gerla egitera soldadoen artian ekharririk zatekiala, eta amets horrez bere semer pharte egiten zialarik erran zeien : « Behinere zien arrebak abia baleza amets horren burutzia, galthatzen deiziet uhaitzari behera ourthouk dezazien eta herabe bazunie lan horren egitera, nihaurek egin nezake. » Hortik ageri da aita borthitz zela, bena ere nahiago zukiala ikhousi bere haurra ithotzez hiltzen eziez eta amets etarik gogatu errisku handian biziaren eta berheziki ounestatiaren galtzeko.

Ama, emazte gothorra zen khorpitez, bihotz hounekoa, gogo azkarrekoa. Haren mouldian, Joana goizik bilhatu zen neskabila serious, pherestu, obedient debot, agudo eta zuhur bat.

Laborari etche behar bezalako batetan, hurrek, ala seme ala alhabek, ezkie aizararik auher egoiteko. Kanpoan edo barnen, usienik bietan, lana bada

ala

ausarki. Joana bertan trebatu zen zouñ nahi lanetan. Kanpoan, behin behin behi deitzen, gero abere-zañgoan, gero baratzekan edo, sasoaren arau, ildo phikatzen, ogi jorran, bedakan, lan hoietara orotara Joana gogo hounez eman eta egin zen. Barnian aldiz, goizik Joanak ikhasi zian amak berak erakatsirik, uruten, josten, ehunian; haiñ ountsa noun lan hoién behar bezala egiteko zouñ nahi emazteri buru etche-
kitzen ahal beitzian.

Bere gradoko persounabatentako, Joana hanitch ountsa eskolaturik izan zen errelijjioneko gaizetan gañen. Handi zian Jinkoaren amorioa eta maite zian elizalat joaitia; han, laket zen othoitzen, bai Sakramentu Saindiaren aitzinian, bai Ama Birjinaren althariaren bai khurutzeфик handi baten houñetan. Ardura kofesatzera eta komuniatzera bazoan eia mezaren entzutera joaiten ahal etzenian, alhorretik edo etche-tik juntatzen zen mezan eginik ziren othoitzer. Etzian bahin ere huts egiten Anjelusen erraitia eta, ala argizeñietan, ala eguerdi zeñietan, ala ulhun-zeñietan, noun nahi agi ledin bethi belhariko othoitze hori egiten zian.

Protsimoaren eretzian ere bethi houn zen; bethi ekharririk beharra zen ordu oroz esku-khaldu baten emaitera nourbaiteritzen edo zerbaiten eskazian agitzen balinbazen. Behin beno haborotan eman izan zian bere ohia atze bati edo besteri, eta berak suthondoko zuzulian etzanik gaia oro igaran.

Bere adineko neskatila gazte ororekin ountsa jiten zen eta ororek maite zien; nahi bada zounbaiten gogoko debotegi edirenik zen.

Adin hortan maithaturik diren edergallien etzian antsiarik. Berbera etchekei zen bere amak eman kobrezko erhaztun bati, erhaztun harek bazutialakoz izkiribaturik *Jesus* eta *Maria* izenak.

Horra noulako zen laborarisa gazte hori nouiz eta ere Jinko hounak deithu beitzian Frantziaren Angle-

sen eskupetik idokitzera eta Frantziako erregiaren bere tronoan ezartera.

Egun batez, — ordian hamahirourgerren ourthian zen — baratxian zelarik, agertu zaion Jaondona Miguel beste ainguru elibateki eta erran zeion : « *Izan adi houna eta debota eta abiloua usu elizalat.* » Aholku eta gomendu elibat egin zeitzon, hitzeman zeion Santa Katalina eta Santa Margarita agertuko zaitzola eta Jinkoak nahi ziala haiek erranak oro egin litzan.

Ainguriak erranaren arau bi sainta horik Joanari behar ordu oroz agertu edo berere mintzatu zeitzon haren argitzeko, haren kontsolatzeko, haren bihotzaren eraikitako eta azkartzeko. Agertzen zaitzonian, Joana boztario handian zen haien edertarzunaz eta etzukian beste aihorik haier zelialat jarraikitzia baisik.

Bena botzek erran zeien bezala, behar zian lehenik Frantzia salbatu. « *Dolugarri, zinez dolugarri dun Frantzia, zioien zeluko botzek, eta eztun erregerik, ez dukerik, eztun hi baizik, Frantzia salbatzen ahal dianik. Frantzia eztun ez Anglaterrako erregiaren erresuma ez Frantziakoarena, bena bai Jesu-Kristena. Frantziako erregia Jesu-Kristen liotinanta dun ; hartakoz behar dun Orleaneko hiria, beita Anglesez setiaturik, soltatu etsaietarik, Frantzia salbatu eta Erregia Reimseko hirian kontsekraerazi eta khoroaerazi. Abil, Jinkoaren alhaba, abil, bihotz handiko neskatila, abil, Jinkoa bethi hire laguntzale baduken !* »

Holako elhek zinez iharrausten zien laborarisa gaichoa. « *Enuzu neskatila ez deus bat baizik, ihardesten zian zeluko botzer, eztakit, ez zamariala igeraiten, ez gerlan aritzen.* » Ezagutzen zian agerik Jinkoaren izenian ainguru eta saintak mintzo zeitzola, etzian hortaz dudarik den tchipiena; bena bere ez deustarzuna ere ikhouston zian eta harriturik bethi lan gaitz horri ihes egitera ekharririk zen.

Holachek iraiñ zian lau ourthez. Bena, azkenian, zelutiko maniak borthizkiago eta presatukiago ema-

nik izan zeitzon : « *Joana, Joana, heltu dun orena, behar dun joan hire herritik Frantziaren salbatzera !* »

Ikhousirik botzek phausurik etzeiela emaiten, Joana joan zen *Vaucouleurs* deithu hiriala, han *Baudricourt* kapitañari behar ziren lagungoen galthatzeko, hel ahal ledin Frantziako erregiaren gana. Zer trufak, zer arralleriak, *Baudricourten* gana helturik, bere galthoa egin zianian ! Kapitañak ertzo batentako hartu zian laborarisa gaztia eta gibel igorri, ziolarik : « *Mathelako zounbait eman ezozie eta bere etchenkoen ganat utzul-eraz.* »

Zounbait hilabete igaraiten dira; 1429^{ian}, bere botzek manhaturik, Joana badoa bethikoz bere etchetik, adiorik etchenkoer erran gabe; bihotza gaintika phenaturik du, sakrifizio hoien egitez eta begiak boustatzen zaitzo, azken aldikoz bere etchiaren, bere elizaren, bere herriaren ikhoustez, ezi botzek erran deie eztela haboro utzuliko, bena badoa, Jinkoaren nahiaren egitera.

Baudricourt kapitaña berriz behartzen du; hounek behar-gabez neskabila harturik zelakoan, ebanjelioak eginerazten deitzo *Vaucouleurs* eko erretoraz. Ez deitzo nahi eman Joanari ez soldadorik ez erregiarentako leterarik. Bena Jinkoak hala nahi eta eztu bihotza phausian. Joanak erranik houlako egunian Anglesek gañia ukhen ziela Frantzesen kontre *Rouvray* delako herri batetan, *Baudricourt* segurtatu zen, berri hori Joanak bere botzen ganik jakina egia zela; lotsatu zen, zeditu eta azkenian eman zeitzon galthatu lagungoak neskabila gaztiari erraiten zeiolarik : « *Zoaza eta agi dadila ahal dena !* »

Joana abiatu zen, bere bidaje handiari buruz, soldado saldo tchipi batekin, baranthallaren 23^{ian}, 1429^{ian}; bazutian ordian hamazazpi ourthiak, ourtharilaren 6^{an} betherik. Hameka egun bide egin ondoan heltu ziren *Chinon* hiriala, noun beitzagon *Charles VII*, errege sarri erresoumarik, tronorik eta kho-

roarik gabia. Nekez Joanak ardietsi zian erregeren palazioan errezebiturik izatia, haiñ zen desaperent edirenik haren ausartze zentzurik gabekoa. Errege, bere khorteko beste jaunen arropak jauntsirik, ororen artian ezagutu zian nahibada etzian behinere haren potretik ikhousi eta khorteko jaun bat jarri zen erregiaren jargian, erregiaren beztimenta berhezia harturik, hobeki Joanaren trompatzia eta haren hutsian edireitia gatik.

Bena *Charles VII^{ek}* borogantchak segurkienik harturik eta harerazirik bai herriko, bai errelijioneko aitzindarien bidez, ezagutu zian Joanari buhurtzia Jinkoaren nahiari buhurtzia zatekiala.

Bestalde, berantzen beitzeion Jinkoak manhatien burutzia, Joanak erran zian azkenian : « *Eztakit ez A ez B, irakourtzen ez izkiribatzen, bena badakit zeluko erregiak igorten naiala Orleanetik Anglesen ohiltzera. Aski dembora galdurik bada; ordu da egin behar dudana eginik izan dadin.* »

Erregek izentatu zian tropetako aitzindari; egine-razi zian Joanarentako bandera berhezi bat, hartan, zeluko botzer obeditzeko, Joanak ezarerazi beitzutian : gainti batetik Jesu-Kristen potret bat bi ainguru ahospez haren houñetan eta hitz hoik : *Jhesus, Maria*; beste gaintitik Ama Birjinaren potreta, Ainguru bat haren houñetan belhariko *Ave Maria* erraiten eta Frantziako erregen señalê armak eta liliak. Tours eta Blois hirietan nekez juntatu zen armada tchipi bat eta haren aitzinian jarririk, Joana joan zen Orleanerat buruz. Gerla hasi beno lehen bere soldadoer orori manhatu zeien kofesatzia, eta debekatu bizitze tzarrik eramaitia eta blasfemiorik egitia.

Lehentze gerlan ari izan zirenian ikhousgarri bere gisakoa izan zen, armada tchipi haren ordre hoberenian ebiltia, neskaitila gazte bat buru debozionezko bandera bat eskian, soldadoek orek *Veni Creator Spiritus* himnoa khantatzen zielarik.

Aphirilaren 29^{an} sarthu ziren Orleanen: 30^{an} Joanak manhatu zian Angleser, Jinkoaren izenian, lekhia huts lezen besteñiz bortchaz eta odol hanit-chen khostuz egin beharko ziela. Anglesak trufatu ziren neskatila ezdeus baten erranaz; bena maiatzaren 7^{an}, arte hartan egun oroz Frantzesen ganik zafraldi hounik ukhenik, Orleanetik hurruntu behar izan ziren.

Salbatore ondoko neskaneguna zen; *Te Deum* kantika gogo hounez eta ezinago solanelki khantaturik izan zen Frantzesez Orleaneko eliza katredalian; eta gai hartan berian, jenten ororen boztarioa eta gogoia izkiribatzen zutian hiriko notari batek, orano irakourten ahal diren hitz hoietan: « *Maiatzaren 7^{an} Salbatore ondoko neskanegunian, Pasioniaren ondotik agitu den mirakullu handienari esker, Orleaneko hiria izan da soltaturik Anglesetarik.* » Uduri zeien orori, *Orleanen* salbatzia ezinbeste hartarik mirakullu bat hañ handia zela, noula Jesu-Krist Goure Jaunaren arraphiztia eta thounbatik bizirik jalkhitia. Jinkoak lan hari egin zian Joana d'Arken bidez.

Bitoriaz bitoria Joanak bidia zabaltzen deio erregiari Reims-era artino. Han, bere bandera maitia eskian, ikhouston du besta ezinago eder batetan buruturik Jinkoak manhatu zeion lana: Frantziaren Anglesen eskupetik idokitzia eta erregiaren khoroatzia.

Zeremonia haren ondotik nahi zatekian Joana utzuli bere etchenko eta adiskide maiten gana, bere etchiala, bere elizala, bere alhorretara, bere arresetara. Bena, erregiak bazian haren beharra erresoumaren osoki Anglesetarik chahatzeko; hobekiago erraitera, Jinkoak deitzen zian Joana esprabien eta sofrimentien bidez, lur hountako khoroak ora beno ederrago eta baliousago zen baten merechitzera. Bere botzek erraiten dere: « *Ez haurra ez; eztezanāla goga*

hainbeste nigar khosta zaitzan jenten eta gaizen ikhoustonera arra-utzultzerik. Utz ezan Jinkoa-hitza nahi dianaren egitera, ezi adelatzen den hiltze bat bizitzia beno ere handiagoa eta ederragoa. »

Maiatzaren 24^{ian}, 1430^{ian} presouner eginik da Compiegne deithu hirian Anglesen adiskide eli batez. Goure salbazalia saldurik izan zen bezala, Joana saldurik da bere etsaier; eta presountegiz presountegi, azkenekoz zerratzen die Rouen hiriko gaztelu batetan, azaroaren 21^{an}, 1430^{ian}.

Han, ezta iseiurik eginik izan eztenik haren sinhestiaren, haren ounestatiaren, haren inozentziaren kontre. Iseiak oro auherretan. Jinkoari esker, azkar egon zen bethi bere errelijioniaren amorioan, bere berthutian, bere chede hounetan. Anglesek ediren zien Aphezkupu gaisto bat, sos truku, Joanaren, Elizaren izenian, heretika, schismatika eta Elizari buhurri bezala kondena erazteko. Bena, Aphezkupu traidoriari bere izen bere obren araberakoarekin — *Pierre Cauchon* deitzenmenteren mentetan jarraikiko zaio Joanaren errana eta plañu leiala : « *Zu eta zoure lagunak etzidie Eliza. Zien sententziaren haustia galthatzen diot Aita Sainiari, houra beita Elizaren gehiena !* »

Eta orano : « *Maite dit Eliza eta behinere enikezu nahi egin ez erran deusere, ene sinhestiaren kontre. Khiristi houna nuzu eta nahi nikezu Eliza sustengi eta laguntu nitan den ahal oroz, Eraman nezazie Aita Sainia gana, haren aitzinian ihardetsiko dit zer ere behar bituket ihardetsi. »*

Sei hilabetez zer nahi ikhousirik, azkenian Joana izan zen kondenaturik errerik hiltzera *Rouen-eko* plaza batetan.

Hil behar zian egunian goizik, jakin zianian bere sententziaren berri, bihotza min handienaz harturik ukhen zian eta heiagoraz eta nigarrez ari zelarik erran zutian hitz dolorous horik : « *Elas !*

*elas! zer thormentu izigarriak egari behar dutudan! Othian, behar dia egun erre eta erhauts bilatu hainbeste arrankurareki bekhatu eta thona orotarik bethi garbi etchekei dudan khorpitz hounek! O bai, nahiago nukian sofritu zazpi aldi lephoaren mouzturik ukheitia eziezgisa horrez errerik hiltzia! Cauchon jin zeion ikhoustera; ordian Joanak, ahaterik bere nigarrak eta plañiak, khorpitz lerdenturik eta begia zorrotzik erraiten deio: « *Aphezkupia, zu zirateke ene hiltziaren ogendanta; bena zoure fujamentiaren kontre Jinkoari oihu egiten dit!* » Cauchon joan zenian, Joanak, ematurik, eztu beste gogorik hiltzuala adelatzia baizik. Harentako houn izan den jaun bati erraiten deio: « *Jauna, noun nizateke gaur?* » Eta Jaunak galthaltu beitzeion eia etzianez Jinkoatan esperantcha hounik, Joanak ihardetsi zeion: « *Bai, bai, gaur Jinkoaren lagungoarekin batian, pharadusian nukezu!* »*

Sei hilabete hartan etchekei zien Joana sakramentietarat hullantzera utzi gabe. Hiltzeko goizan etzaitekian egon kontsolio ezinago balious hori gabe. Bere galtoaz pharte eginerazten die *Cauchon* aphezkupiar, eta hounek ounhesten du. Ounheste horrez bere sententziaren injustizia ezaguterazten zian, ezi heretiko, schismatiko eta Elizari buhurri direnek eztie sakramenturik ukheiten ahal. *Cauchon-en* baimenarekin, Joanak azken kofesione baten ondotik egiten du bere azken komunioa, kontsolazionezko nigar eli-bat machelak behera joaiten zaitzolarik. Goratik, elhe hounkigarrienez, gomendatzen da Jesus goure Jaunari, gero Ama Birjinari, gero bere gida eta laguntzale ukhen dutian saintu eta sainter. Eta, ikhoustez haiñ tristeki hiltzera zoan neskatila gazte haren debozionia eta entzunez haren othoitzezko hitzak, presountegiaren begirariiek bihotzak erdiraturik, etzutien haiek ere nigarrak begiratu ahal izan.

Gaztelutik suplizioaren lekhiuala eraman zienian bourreuen karrouchan, Joanak bidia othoitzian igaran

zian. Heltu ondoan behar ukhen zian entzun pherediku gezurti bat aphez batek populiari eginik, hartan haren alegiako ogen eta gaizki eginak oihustaturik izan beitziren; behar ukhen zian entzun orano bere hiltzeko kondenezione injustoa.

Entzun du bai heretiko bezala eta Elizari buhurri bezala hiltzera kondenaturik dela, Joana belharikatzen da eta oihuz othoitze egiten du : « *Trinitate Saintia, ukhazu pietate nitzaq ! Jesus, ukhazu pietate nitzaq !* Othoitzen dutu orano Ama Birjina, eta bere saintu eta santa maitiak ; gero galthatzen du, han diren aphezer, meza bedera eman dizen haren arimaren phausiarentako ; eta noula, sententzian, Frantziako erregia gaizki erabilirik beitzen, erraiten du : « *Extezaziela ogendant ezar ene erregia ; nourbaitek balinbadu ogenik nik egin gaizetan hora ogenik gabe da* ». Gero galthatzen du khurutche bat. Angles batek bi tzotz phouzkaz, noulerapait, egiten du eta emaiten deio. Joanak hartzen du khurutche hori, potstatzen, eta bere bihotzaren erezian arropen pian ezarten. Bena nahi luke khurutche bat Jesu Kristen potreta itzaturik lukiana. Eliza hullanenetik ekhartzen deie eta Joanak, nigarrez, postatzen du hora ere eta besaraturik tink-tinka etchekitzen.

Artehortan, Angles soldadoek pazentzia galdurik die. Bourreuak Joana egur athe handi baten gaña igaranerazten du eta han pilar bati estekatzen. Joanak gomendu hau egiten deio khurutchia elizatik ekharri dianari : « *Ene aitzinian ethek ezazu ahal deno, amorekatik eta ene hiltzerakoan, ene azken soa izan dadin ni khurutchian arrerosi naian Jinkoaren potterarentako !* »

Bourreuak, eraits eta suia phizten du. Egur idorrari bertan suia lotzen da, khia eta lamak altchatzen dira, birjina garte ogen-gabiaren arropetara heltzen dira eta sarri dolozko beztimentu batez unguratuko eta tinkatuko die. Jinkoaren zerbutchian eta chahutar-

zunian bethi begiraturik izan den khorpitz houra. Suiaren karrasken haste hastian Joanak oihu egiten du : « *Ez, ez, enaie ene botzek trompatu! Jinkoak mintza-erazten zutian! Egin dutudanak oro egin dutut Jinkoaren manuz!* » Suiaren ousouki borthitzen borogatziareki, Joanak galthatzen du hour benedikatu ourthouk dizen gaña. Bena su lamak gorriago eta tinkago, khia lodiago eta beltzago heltu dira Joanaren gordatzera, artetik hirour plañu bezala geroago eta flakiago entzuten dira : « *Jesus!... Jesus!... Jesus!...* » Eta gero deusere. Azken oihu hortan, Joanak eman zian azken hatsa. Maiatzaren 30^a zen, 1430^{ian}, Joanak ezutian orano hogeï ourthiak.

Suia hil ondoan, bourreuak bildu zutian Joanaren khospitzaren oundarrak. Ediren zian, ezurren artian, bihotza, Jinkoak mirakullu batez errakurarik gabe begiraturik. Errelika horik ezari zutian oihal batetan eta, Angles aphezkupe baten manuz, ourthouki *Seine* deithu uhaitz handialat. Bena, etzen egon abal izan bere gogoan ziana erran gabe : « *Galdurik gira, sainta bat hilerazi dugu!* » eta, gaian berian kofesatu zen, bere kontzentiaren phausian ezartiagatik.

Joanak oihu egin zian Jinkoari eta Aita Sainthari bere hiltzeko kondenzazione injustoaren kontre. Hantik aitzina Anglesek etzien deus hounik ukhen Frantzian. Joanak egin aitzinerrana egia agitu zen ; Anglesek, bederaka bederaka, galdu zutien Frantzian zutien probintziak eta hiriak. Joanaren hileraztiz ogendant zirenak oro markatuki hil ziren. Azkenetarik, *Cauchon* aphezkupea, Elizaz eskumukaturik izanik Baleseko konzilioan, hil zen Rouen hirian berian, subitoki, bizarra egiten zeielarik, 1442^{ian} abentiaren 18^{an}. Horra Jinkoaren eretzetik.

Aita Sainthien eretzetik ere Joanak ukhen dutu behar ziren erreparazioniak. Frantziako erregiaren eta Joanaren amaren eta anaien galthoala, Aita Saintu *Kalixte III^{ak}* manhatu zian, haren hilerazteko prozesa


ountsa ikherturik izan ledin. Ehi izan zen borogatzia, kondenaçione hori artikulu gezurti eta kalomniatsu elibatetan gañen bermaturik zela, Joana bethi Elizaren haur etchekia eta obediencia izan zela. Aita Sainiaren manuz, Rouen hirian, Joana erre zien plazan berian, 1456^{ian} uztailaren 7^{ian}, oihustaturik izan zen haren inozentzia eta hautserik haren hilerazteko kondenaçionia. Diala hamazortzi ourthe, *Léon XIII^{ak}*, ezaguturik Joanaren bititze miragarrian saintutarzunezko markak, manhatu zian, dohatsien herrenkian haren ezarteko prozesa abia ledin. Azkenekoz, oraiko Aita Sainiak, *Pio X^{ak}*, Joanaren bititze miragarria, haren egitatiak, haren berthutiak eta azken denbora haietan Joanaren arartekotarzunaz agitu hirour mirakulluzko sendotze berme, solanelki dohatsu oihustatu du eta altchatu altharetara.

Dezagun urhent Joana d'Ark dohatsiaren istoria, haren bestan, Salvatore ondoko igantian, Elizak egiten dian othoitziatz : « O Jinko Jauna, miragarriki Joana, Birjina dohatsia, bere sinhestiaren eta bere herriaren begiratzera igorri duzuna, egizu othoi haren arartekotarzunaz, Elizak, bere etsaien iseiak garhaiturik, goza dezan orozbatko bakia ».

Joana dohatsia, othoitze egizu goure gatik !



ZER DIREN ESKOLETAKO LEGIAK MUNDIAN



HOUNA zer lege suerte ekharririk den munduko naziõne argitienetan eskoler buruz. Borogantchak aitzinian ukhenik, lan ehia dateke, bakhotcharentako, ezagutzia eztirela Frantzian bai-

zik zaphaturik edo khatiastaturik aita-amek haurren eskolatzeko hartze dutien zuzenak eta libertatiak.

Munduko populu edo nazione argitienak hamazazpi dira : Frantzia, Alamania, Anglaterra, Autricha, Beljika, Danemarka, España, Hollanda, Hongria, Italia, Kanada, Luxembourg, Nort-Amerika, Norvéjia, Portugalia, Roumania eta Suissa.

Nazione hoietarik, *biga* badira : Italia eta Kanada haietan gobernamentia ezpeita arrankurutzen bere gogoko eskola baten emaitiaz. Zuzen hori utzirik da herrier eta herrietako aita-ama familiatzkoer. Hoiek dutie haitatzen beren eskolak eta beren eskola egiliak.

Beste *bederatzutan*, libertate osoa emanik da eskolatzari. Eskola libroak hanitchez hedaturikago dira bestiak beno eta gobernamentiak eztu eraikitzen bere manuzpeko eskolarik, eskola libroak eskazegi direnian baizik. Ezta ihour ere bortchaturik eskola publikoetara haurren igortera eta eskola libroetarat beren haurrak igorten dutienek ezte sos bat ere eman beharrik eskola publikoen eraikiteko, ez errejent eta errejentsen phakatzeko. *Eskola publikoen gastiak oro egaririk dira haiezaz baliatzen diren familiez berez.*

Bederatzu nazione hoietarik *scietan*, eskola publikoetako errejent eta errejentsek behar die izan *neutre* ; ez Frantziako framazouek gogatu *neutralité* delako harekin, zouñek Eliza katolikoaren sinhestia ostikatzen beitu, ez ; bena errelijoniak oro errespetatzen dutian *neutralité* egiazkoarekin ; sei nazione hourak dira : Anglaterra, Hollanda, Hongria, Nort-Amerika, Roumania eta Suissa.

Bederatzietarik *hirouretan* aldiz, eskolak edo osoki katoliko edo osoki protestant dira, bena ezta ihourrentako bortcharik errelijione bataren edo bestiaren liburien ikhasteko ; hortan gañen eskola-egilek aita-amen nahia egiten die. Halako eskolak edireiten dira Beljikan, Danemarken eta Norvejian.

Bost nazionetan, gobernamentiek berentako begiratzen die eskolen eraikitako eta haietan nahi dienaren ikhaserazteko zuzena, bena ounhesten die eskola libroak eraikirik izan ditian.

Bost nazione haietan, legiak manhatzen du erreligionia erakatsirik izan dadin; bena eskola hartan erakatsirik den erreligionia ezpalinbada haurrek ororek sinhesten eta pratikatzen diena, aita-amek badie zuzena, *eskolan berian*, beren haurrer, *berak haitatu eskola emaile batzuen bidez*, beren erreligioneko erakaspén berhezien eman-erazteko. Hala egiten da Alamanian, Autrichan, Españan, Luxembourgen, Portugalian. Berbera Españan edireiten da obligazionia haurrer orori, erreligionen katolikoari berberari doatzen erakaspénen emaitako, ezpeita beste erreligionerik pratikaturik nazione hortan, katolikoa baizik.

Eta noun ere errespetaturik beitira erreligionen edo sinhestiak oro, *neutralité* delako arrazouan bermatuz, han, eskola-egilek badie eginbidia haurrer ezaguterazteko badela Jinko bat, badirela Jinkoaren eretzeko eginbidiak, eginbide haien bethatziak merechitzen diala bethiereko irousitatia bizitze hounen ondotik, hala noula haier huts egitiak bethiereko gaztigiak merechitzen beitutu.

Arren horra munduko *hamazazpi* nazione argitienetarik *hamaseietan*, eskolak egiazko erreligionien edo berere Jinkoaren izatiaren errespetazale. *Hamazazpietarik hamaseietan*, ezaguturik eta *errespetaturik dira aita-amek Jinkoaganik eta naturalesaren legetarik beren haurrer buruz dutien zuzenak*. Ezta gobernamenturik ez legerik, hamasei haietan, ausartuko denik erraitera *haurrak gobernamentiarenak direla aita-amenak beno lehen*.

Zer nahastiak, zer erreboluzioniak, zer errejent eta errejenter afrountiak, zer gobernamentuko gizo-

nen pialaz-goratzia, holako pretentziona hastialgarriak nahi balutiek burutu nazione haietan!

Elas, elas, aithortu behar dugu, ezagutu behar dugu holako pretentziona, holako mounstrokeria, framazouek burutu diela *hamazazpi* nazione argitietarik *batetan*, Frantzian.

Han eskola deithurik da *l'école sans Dieu*; *M. Steeg* oraiko ministro eskolen gehienak, hitzez hitz, hola deithu du, igaran urrietan, Bordelen egin dian pherediku aipatu batetan.

Han, aita-amen zuzenak zankho-petan ezaririk eta khatiastaturik dira; nahi ala ez, bortchatu dira, sobera lekhotan, haurren igortera eskola gaistoetara. Ezi, balinbadira orano iruski errejent eta errejentsa errelijionetiar zounbait, beren eginbidia, kontzentzia khristia kolpatu gabe bethatzen dienak, badira ere beste eli-bat zounen eskoletan goure errelijione saintia ezpeita errespetaturik.

Eskola hourak eskola gaistoak dira, errelijioniaren kontrekoak, haietan haurrek eskietan dutielakoz Elizaren aitzindariak kondenatu liburu elibat. Zounbat eskola eztira noun errejent eta errejentsa elibatek bi mila libera gora-behera soldataren truku emaiten beitie haur khristier beren sinhestiaren kontre den erakaspak bat!

Han, gobernamentiak ezarten dutu Aita Saintia, Apehekupiak, aita eta amak beno aitzinago bere errejent eta errejentsak!

Nouiz ezagutuko die eta behar den gisaz ezagute-raziko aita-ama familiakoek, libro badira legarren bidez errejent eta errejentser, haiñ nekez geñhatu eta juntatu dutien urhen igaranerazteko, etzaiela haizu, hanitchez urhia beno baliousago diren, beren haurren arimen eskola gaistoetara igortia?

Ezi hobe da, bethi ezaguturik izan da hobe dela, Elizarek; framazouer eta haien mithil edo neskatoer buhurtzia eziez eta haiekin Elizari gerla egitia.

ELIZAREN ZUZENAK

ELIZA Jesu-Krist Goure Jaunak ezari du, haren izenian, mudiaren urhentzialano gizoner salbatzeko behar dutien lagungoen segurtatzeko. « *Ni ene Aitak igorri naian bezala, nik ere igortzen zutiet* » horra zer erran dian goure Salbazale Jinkoak bere Apostolier, eta haietan, mundian menteen mentetan aldikatu, aldikatzen eta aldikatuko diren Aita Saintua eta Aphezkupier.

Jinkoaren elhe hori berme, Elizak eta Elizak berberak badutu, Jinkoaren izenian erabilteko, hirour kargu eta zuzen suerte, baitezpada hartze dutianak, eta etsai azkarrenen indarkek egundano khentu ez behinere khentuko ahal izanen ezdeitzenak : 1^o *Eskola emaiteko*, 2^o *arimen salbatzeko*, 3^o *arimen gobernatzeko kargu eta zuzenak*.

— 1^o *Badu eskola emaiteko kargia*, eta hori mundu guzian, zouiñ nahi populuen artian, mundu guzia Jesu-Kristena beita, populiak oro haren Odolaz arrosirik beitira.

Kargu horrez, behar dutu arimak argitu egiaren gañen, laguntu argi haren begiratzen, begiratu argi houra ulhutzen edo galerazten ahal dien erriskiatarik.

Kargu hortarik horra zaitzo zuzen berhezi eli-bat : sinhetsi behar diren egien ezaguterazko zuzena : kachimaren erakasteko eta trabarik gabe Ebanjelioaren pheredikatzeko-zuzena ; gaizkiari eta gezurrari buhurtzeko zuzena ; kaseta eta liburu gaistoen kondenatzeko zuzena ; eskola handi ala tchipi, seminario ala kolejio, zabaltzeko, eta, haietan, berak haitatu

eskola-egile batzuez berak nahi dutian liburu edo gazetan eskola-emaiteko zuzena; bere eskolez kanpokoetan orotan zer erakatsirik den jakiteko zuzena, bere haurren begiratzia-gatik haien arimen galgarri edo errelijioniaren kontre liratekien erakaspenetarik.

Gobernamentiak eztu kargurik ez zuzenik kontzentzien argitzeko ez arimen mouldatzeko; haren kargia eta zuzenak beste gisako dira. Hari da, eskola etchen eraikitia, haien gastien egartia eta eskola egilen phakatzia, legarretarik biltzen dutian sosekin. Hari da, eskoletarik hurrun etchekitzia lege justoen, ounestatiaren eta orotan gainti errelijione saintiaren kontre liratekien erakaspenen, errelijionia delakoz gobernamentu baten eta zozietatiaren zola edo foun-damen baitezpadakoa.

— II^o Elizak badu *arimen salbatzeko kargia*. Kargu harrek manhatzen deio naturalezaz goragoko, graziazko, bizitziaren arimer emaitia eta arimetan haren ahal oroz emendatzia eta ahal bezain ountza begiratzia.

Kargu horrek manhatzen du Elizak ukhen dezan errelijioniaren pratikatzeke eta zeremonientako behar diren ororen ukheiteko zuzena; elizen, elizetako hatien, elizetako eta errelijioniari doztzan beste gastien egartia-gatik hountarzun behar direnen ukheiteko zuzena; zeremonien trabarik gabe egiteko zuzena; sakramentien ororen emaiteko zuzena, ezkontzia berhezi gabe, ezpeita legerik Jinkoak Elizari eman photeria ezeztatzen ahal dianik; fraide eta serora Kongregazionen establitzeko zuzena, fraide eta serorak beitira hobekienik Eliza laguntzen dienak errelijioniaren mundu guzian hedatzeko, bai ere karitatezko obren eta eskola khiristien bazterretan abiatzeko eta emendatzeko.

— III^{ik}. Badutu azkenekotz: *arimen gobernatzeko kargia eta zuzena*. Jezu-Kristek eman deion lana ele-

zake egin ahal kargu hori eta zuzen hori gabe. Bich-tan da, behar diala ukhen diozesatan eta parropiatan lur khiristien zathikatzeko zuzena; diozesa eta parro-pia haietan bere manuzpeko eta fededunen gida izanen diren aitzindarien ezarteko zuzena; Aphez-kupu bilkhura, mundu guzian edo nazione batbede-ratan, Aita Sainiaren gehiengoaren pian, egiteko zuzena; hala hala, aphez bilkhura diozesetan beren Aphezkupien gehiengoaren pian egiteko zuzena; lege ekharteko zuzena eta lege haier obeditu nahi eztien fededunen, beren desobedientziaren grado, gastigatzeko zuzena.

Horra zer kargu eta zuzenez dunturik den Jesu-Kristen Eliza. Elizari kargu eta zuzen hoietan traba ezartia Jinkoaren lanari eta Jinkoari berari traba ezartia da.

Jesu Kristek erran deio bere Elizari, *trabatuko diela eskerniatuko, persegituko, zaphatuko*; bena erran deio ere: « *Ez beldurrik ukhen; zourekin nuzu menteen urhentziala artino eta ifernuko borthek ezlikezie indarrik aski, zoure garhaitzeko.* »

Hartakoz, Elizak eztu behinere beldurrik ukhen; heme, retzu ourthe badutu jakile, eztela behinere gaizki jalkhi beldurrik ez ukheitetik eta Jinkoaren beithako konfidantcharen bethi azkar, etsaien indar-rak beno azkarrago, begiratzetik.

LIBURU KONDENATIAK

Houna zouiñ diren Frantziako Kardinale, Archi-bisko eta Aphezkupiek kondenatu liburiak :

Calvet : Histoire de France.

Gautinier et Deschamps : Histoire de France.

Guiot et Mane : Histoire de France.

Rogie et Despiques : Histoire de France, Petites lec-tures sur l'histoire de la civilisation française.

Devinat : Histoire de France.

Brossolette : Histoire de France.

Aulard et Debidour : Histoire de France.

Aulard : Eléments d'instruction civique.

Jules Payot : Cours de morale : La morale à l'école.

Albert Bayet : Leçons de morale.

Primaire : Manuel d'éducation morale, civique et sociale, Manuel de lectures classiques.


Hamalaur liburu horik eztira arhinki kondenaturik izan; zounbait eskola egilek edo haien sustengazale diren kaseta edo jentek sinhetserazi nahi lukien bezala.

Eztira Elizaren gehienak, Frantziako Kardinale, archibisko eta aphezkupeak, oro, hitzartu holako kondenazione serious baten emaiteko, gaizak oro ountsa phezatu eta liburu hourak cheheki estudiantu edo estudia-erazi gabe.


Eztie debekatu, sakramentietarik hurrun etchekirik izateko phenaren pian, liburu haiez zerbutchatzia, ezagutu gabe liburu hourak edo direla goure errelijione saintiaren erakaspenen kontre edo Elizaren istoria ezten bezalako emaiten diela; hitz batez, segur izan gabe liburu hourak galgarri direla haurren sinhestiarentako, haurren kontzentiarentako, haurren arimarentako, errelijione saintiarentako.

Jinkoak argi ditzala, hortan gañen beren eginbidia-
ren bethatzeko utsu eta ezachol diren aita eta ama
dohakabiak!





IGANTIAREN HAUSTIAZ




Bi laborari ziren, alkharren aizo, Johane Phourtzilo eta Aillande Legatsu. *Phourtzilo* erreligjione tchipikoa, Legatsu aldiz handikoa. Phourtzilok aisa utziko zian igantez elizat joaitia, eguna oso alhorrian edo sorhouan langiten igaraiteko, edo orano kabanen, urzoka sasouian. Legatsu, bere etchenko ororeki bazoan mezalat eta bezperetarat; adiskidekin partidatto zounbait artthoan edo mousian ostatian egin, edo, dembora eder bazen, killakan edo pelotakan, eta goizik utzultzen zen etcherat, kabalen geñhatzera.

Erran gabe doa Legatsuri, iganteko lanik gabe, egitekoak hobeki joaiten zaitzola, Phourtzilori iganteko lanarekin beno. Ezi Phourtzilok ezpazian hartzen aizararik igantez, edireiten zutian aste oroz egun bat edo usian biga, merkhatiala joaiteko, eta han, haren mousak eta sabelak, gisa bederatarata, bata hutstez bestia bethatzez, igaraitze bat ukheiten zien.


Egun batez, Phourtzilo hasten zaio trufaz Legatsuri igantez elisalat joaitiaren gañen.

Legatsuk ihardezten deio : « Suposa ezak badutiala zazpi urhe pheza eta bidian beharrunant bat bathurik, zazpietarik sei emaiten deitzoala. Zer erran hiro laguntu hukian gizon harez? » — « Erran niok obligazione handia zor leikedala. » — « Hanitch ountsa; bena zer erran hiro, gizon harek, esker hounen lekhotan, makhila eskiala har, zehaldi bat hiri eman eta ebats baleikek baratzen zaikan zazpigerren urhe pheza? » — « Merechi likek urkha dezen » dio Phourtzilok. Legatsuk ordian eztiki : « Hortarik hire

buria bera kondenatzen duk ; ezi hire istoria duk. Jinkoak eman deitzak zazpi egunetarik sei hiretako, hire biziaren irabazteko ; zazpigerrena bere erreserbi dik. Eta hik, esker hounak utzuli lekhutan, zazpigerren egun houra ere ebasten deiok. » Phourtzilo baratu zen ichil ichila, ezpeitzakian zeherran.



ISTORIA ETA ERASI



ETCHeko-ANDERE batek phenarekin ikhouston zian bere etchenko gastiak handitzez zoatzala, mouzkinak aldiz tchipitzez. Badoa adiskide zahar bati aholku galthatzera eta harek erraiten deio : « Nourk khasu hartzen du zoure etchenko gaizez ? » — « Emazte adineko osoki ene konfidantcha dian batek. » — « Eta nourk begiratzen du mousa ? » — « Ene senharra hilez geroztik gizon ounest batek. » Adiskide zaharra chutitzen da, badoa khanbera batetara ; bouilta baten burian utzultzen da kesa tchipi bat eskian eta erraiten deio emazte bisitazaliari. » — Orizu, har ezazu kesa hau eta eraman ezazu goiz oroz, behin, hanitch goizik, hala hala, egun oroz hirouretan, eta arrats oroz berantian beste behin, zoure etchenko eznetegiala, zederala, graneriala eta chokho orotara ; lan hori egizu ourthe batez arrount. Gero, hori egin eta, ourthiaren burian utzul zite ene gana zer agitu den erraitera. Presentz hori desaperrento uduritu zaion etchekoandere handi hari, bena konfidantcha beitzian jaun zaharraren aholkietan, joan zen etcherat, haier jarraikitzeke chede azkarrarekin.

Biharamenian berian hasten da unguriaren egiten. Eznetegian edireiten du ezne gastatu franko, neska-

toak aldiz hatzemaiten dutu alagerarik eta koloriak hala noula hatsak hounik, boutilla bat ardou hirouren artian abantchu edanik, askari houn baten urhentzen; Zederian, mithil bat, barrikatik ountzi handi baten ardouz bethatzen ari zen; barrukian edireiten dutu behiak orroaz, gosiarekin, manjatera huts baten aitzinian, haien khantian aldiz behi-zaña lastoan etzanik lohordi; granerian kochema bere familiaren-tako zaku baten ilharrez bethatzen. Azkenian badoa bere moulseroaren gana eta galthatzen deitzo khountien libriak, orano egundano egin etziana. Liburu haietan edireiten dutu khountu okher andana bat bere damutan eta arrount igorten du moulseroa etchetik erraiten deiolarik berberak nahi dutiala khountien libriak etcheke hantik aitzina.

Ourthia hola igaraiten du eta ikhousten du bere fortuna zinez emendatu zaiola. Badoa adiskide zaharrari berri houn horren emaitera eta utzultzen deiolarik kesa, galthatzen deio: « Zer majika ezari othe zunian kesa hortan barnen? » — Jaun zaharrak, zabalturik kesa, hantik khentu zian paper bat eta etcheke-anderiak paper hartan irakourri zian: « Zihaurek etchiaz khasu har ezazu eta egitekoak ountsa joanen zaitzu. »

— Senhar emaztiak ari dira aharran. Senharrak emaztiari. « Ori, Kattina, merechi zunukian khuso bat senhartako. » — Kattinak arrount: « Hartakoz ere zoureki ezkontu nuzu. »

— Perlina Faizou neskato da etche handi batetan. Uduri zaio eziala ihourk ere harek bezainbeste izpiritu. Komedi-ent elibat heltzen dira herriko plazala eta badutie zamari sabant dielako elibat.

Madama joan nahi baita gai batez plazan komedientek egiten dien bilkhurala : « Othoi begira zite joaitetik, dio Perlinak, ezi zamari sabant harek ezaguterazten dizu ooren aitzinian zouiñ den bilkhurako astañarik handiena. »

..

— Maider, orano gaztetto, nahi da plazatu haurzañ. Madama bati eskentzen dero bere buria. Madamak : « Ene haurttoa, orano tchipi edireiten zutut, haurzañ izateko. » — Maiderrek : « Madama eta hobe baizik eztuzu ezi haurrak, ene besoetarik erortian, gutiago mankhatuko dutuzu. »

..

— Donaphaleuko elizan ezta selaururik ; gizonak gainti batetan, emaztiak beste batetan jarten dira. Egun batez pheredikia ari zelarik, elhesta baten herotsa entzunik, pheredikaria baratu zen eta utzuli elhestazaler buruz. Katicha Mihiluzek erraiten dero zinez : « Jauna, elhestariak eztututzu segur emazten gaintian. » — Aphezak erri bateki : « Hobe, bertanago ichiltuko tutzu. »

Muskuldiar etheko-jaun bat utzultzen zen merkhatutik, orgak hounkallu zakuz eta beste hanitchko trastuz kargaturik. Donachtiar emazte bat batzen du bidian, hora ere etcherat utzultzen, biesak eta zare beltz bat eden ahala betherik, bera haien pheziak eñherik. Muskuldiarrak erraiten deio : « Emaztettoa, zinez kargaturik zira, igaran zite orgetara. » — Emaztia kontentik igaraiten da bena biesak bizkarrian begirazten dutialarik eta zaria altzoan : « Gaicho behiak, erraiten du itzañari, ene kargareki franko badizie eta orai aidian nihaur izatiareki, ene biesa eta zariak aisa kharreiatuko dizit. » Muskuldiar gizonak bere beithan ountsa erri egin zian eta bere gogoai-

rekin igaran : « Gaicho behiak, erraiten dun; ez othe hiza hihaur behiak beno gaichoago? »

..

— Gasoil Mendikotarra eta Pelat Barkochtarra, aspaldian beren buruko ilhiak joanik dira. Pintou bat ardou alkharrekin edaten ari direlarik, Pelatek Gasoili erraiten deio : « Noula agitu zaik hola bilhoen ororen galtzia? » — Gasoilek ihardestendu : « Soik, lotseria batek haiñ nik iharrausi noun, batbatetan ene bilhoak oro jauzi beitzaitat eta tripot eta lukhaiñken hagari chilinttchaou jarri. Hiri aldiz, zer agitu zaik? » — « Oh, eni ere lotseria batek egun batez, bat-bate-tan, bilhoak oro sar erazi ziztadan buruko larriaren pian! » Eta hortan gaña, ardou lahisa bedera, biek zouiñ seriouskiago edan zien.

..

— Kadet Chamarhandi merkhatiala joanik da. Bi jaunskillot jiten zaitzo eta alegia laguntu nahi diela, beren erdian ezaririk elhe mehez eta trufaz, ahoala jinak oro erraiten ari zaitzo. Batak erran beitzeion : « Errazu adiskidia, asto zireia ala ergel? » Kadetek ihardetsi zian : « Enuzu bata ez bestia, bena segur dena duzu, halako bien artian nizala. »

..

Perttoli, sukhar handi batek harturik, ohian dago eta bedezia jinerazi du. « Errazu eta noun duzu mina » dio barberak. « Jauna, eztakit, enuzu batere ountsa. » — « Zer ari zira arduran! » — « Houna, jauna, ari nuzu lanian idi bat bezaiñbeste; jaten dit otso batek bezaiñbat, eñhetzen nuzu zakhur bat bezaiñbeste. » Bedeziak, imour houn bateki. « Adiskidia, hola denaz geroz hobe zunuke beterinari bat deithurik. »

— Gizon gazte bat tribunaliaia eramanik da. Juje gehienak, aitzinian ezarten deitzo egin dutian ouhouñkeriak eta gaizkiak oro eta erraiten deio azkenian : « Horra zertaratu zutian lagun gaistoekin ebiltiak. » — « Lagun gaistoekin diozia, Jauna? enuzu ihourekin haiñ usu agitzen noula jaun jujiekin. »

Santa Graztar bat eta Phagolar bat alkharrekin agiturik, igaran agorrilan, beroaz mintzo ziren. « Bero egiten dia Phagolan, dio Santa-Graztarrak? » — « Bero egiten dianez? dio bestiak; phentsa ezak, olloek arrautziak kuskian gogorturik erruten deizkiek! »





MAIATZA edo EPHAILA

Eg. luzatzen dira oren eta laurdenez




- ⊕ *e. h.*, 1ⁿ, goizeko 10^{or} eta 20^m.
- ⊕ *a. l.*, 9ⁿ, goizeko 9^{or} eta 56^m.
- *g. h.*, 16ⁿ, arratseko 10^{or} eta 14^m.
- ⊕ *l. l.*, 23ⁿ, arrastiriko 2^{or} eta 12^m.
- ⊕ *e. h.*, 30ⁿ, arratseko 11^{or} eterditⁿ

ARRAMAIATZA edo EKHAINA

Eg. luz. dira oren eta 1/4, 22^a artino.



- ⊕ *a. l.*, 8ⁿ, goizeko 2^{or} eta 36^m.
- *g. h.*, 26ⁿ, goizeko 6^{or} eta 24^m.
- ⊕ *l. l.*, 21ⁿ, arratseko 8^{or} eta 39^m.
- ⊕ *e. h.*, 29ⁿ, arrastiriko oren eta 34^m.



- 1 Astizken. J. Filipeet. Jak. Ap.
- 2 Ostegun. s. Atanasi.
- 3 Ostirale. Da Khurutze.
- 4 Neskanegun. sa Monika.
- 5 **Igante.** 4 s. Pio V.
- 6 Astelehen. J. Johane Eb. B. L.
- 7 Asteharte. s. Justin.
- 8 Astizken. J. Migel. agert.
- 9 Ostegun. s. Gregori.
- 10 Ostirale. s. Antonin.
- 11 Neskanegun. s. Oriens.
- 12 **Igante.** 5. s. Nere eta Akile.
- 13 Astelehen. *Errog.*
- 14 Asteharte. s. Bonifazio.
- 15 Astizken. s. Isidro. labor.
- 16 Ostegun. SALBATORE
- 17 Ostirale. s. Paskal B.
- 18 Neskanegun. s. Venanzio.
- 19 **Igante.** sa Pudenziana.
- 20 Astelehen. s. Bernardeñ.
- 21 Asteharte. s. Jermeri.
- 22 Astizken. sa Kiteria.
- 23 Ostegun. s. Desire.
- 24 Ostirale. A. B. Laguntzalia.
- 25 Neskanegun. s. Gregori VII
- 26 **Igante.** PHENTEKOSTE.
- 27 Astelehen. sa Madal. Paz.
- 28 Asteharte. s. Urbain.
- 29 Astiz. IVTh.B. s. Matsimin.
- 30 Ostegun. s. Felis.
- 31 Ostir. IVTh.B. sa Anjela, mer.

- 1 Nesk. IVTh.B. s. Klaro.
- 2 **Igante.** 1. TRINITATE.
- 3 Astelehen. sa Klotilda.
- 4 Asteharte. s. Franzes Kar.
- 5 Astizken. s. Florenzio.
- 6 Ostegun. BESTABERRI.
- 7 Ostirale. s. Gilbert.
- 8 Neskanegun. s. Medart.
- 9 **Igante.** 2. sa Pelajia.
- 10 Astelehen. sa Margarita.
- 11 Asteharte. s. Barnabé, ap.
- 12 Astizken. s. Johane Fr.
- 13 Ostegun. s. Antoni Pad.
- 14 Ostirale. J. Bihotz Sak.
- 15 Neskanegun. sa Jermena.
- 16 **Igante.** 3. s. Frantz, Reg.
- 17 Astelehen. s. Avit.
- 18 Asteharte. sa Marina.
- 19 Astizken. s. Gervasi eta Prot.
- 20 Ostegun. sa Juliëna.
- 21 Ostirale. s. Louis Gonz.
- 22 Neskanegun. s. Pauleñ.
- 23 **Igante.** 4. s. Eusebio.
- 24 Astelehen. J. JOHANE BA.
- 25 Asteharte. sa Eurosia.
- 26 Astizken. J. Johane eta Paule.
- 27 Ostegun. s. Prosper.
- 28 Ostirale. s. Irene.
- 29 Neskanegun. J. PETRI eta P.
- 30 **Igante.** 5. J. Pauleren or.



USTAILA

Egunak llaburtzen dira oren 1ez.




- ☿ a. l., 7ⁿ, arratiriko 4^{or} eta 47^m.
 ● g. h., 14ⁿ, arrastiriko or. 1 eta 14^m.
 ☽ l. l., 21ⁿ, goizeko 5^{or} eta 19^m.
 ☾ e. h., 29ⁿ, goizeko 4^{or} eta 29^m.

AGORRILA

Egunak llaburtzen dira oren 1 1/2



- ☿ a. l., 6ⁿ, goizeko 4^{or} eta 18^m.
 ● g. h., 12ⁿ, arratseko 7^{or} eta 56^m.
 ☽ l. l., 19ⁿ, arratiriko 4^{or} eta 57^m.
 ☾ e. h., 27ⁿ, arratseko 7^{or} eta 11^m.



1 Astelehen.	s. Tierri.	1 Ostegun.	J. Petiri katiel.
2 Asteharte.	A. B. BIZITAZ.	2 Ostirale.	s. Alfonso, Lig.
3 Astizken.	s. Gillelme.	3 Neskanegun.	J. Esteberen edir.
4 Ostegun.	s. Marzial.	4 Igante. 10.	s. <i>Dominiche.</i>
5 Ostirale.	s. Zirile	5 Astelehen.	A. D. M. Elhur.
6 Neskanegun.	s ^a Mektilda.	6 Asteharte.	J. K. Transfig.
7 Igante. 6.	J. Odol Prez.	7 Astizken.	s. Kajetan.
8 Astelehen.	s. Ujena.	8 Ostegun.	s. Ziriako.
9 Asteharte.	s. Elisabet, p.	9 Ostirale	s. Jermeñ.
10 Astizken.	Zazpi anaie m.	10 Neskanegun.	s. Laorenz, m.
11 Ostegun.	s. Pio.	11 Igante 11.	s. <i>Tiburze.</i>
12 Ostirale.	J. Johane Galbert.	12 Astelehen.	s ^a Klara.
13 Neskanegun.	s. Anaklet.	13 Asteharte.	s ^a Radegonda.
14 Igante. 7.	s. <i>Bonaventura</i>	14 Astizken.	s. Euz. <i>Barour.</i>
15 Astelehen.	s. Johane Maj.	15 Ostegun.	A. D. M. ZELIALAT.
16 Asteharte.	A. D. M. KARM.	16 Ostirale.	s. Rok.
17 Astizken.	s. Aletsis.	17 Neskanegun.	s ^a Emilia.
18 Ostegun.	s. Kamille.	18 Igante. 12.	s ^a <i>Elena.</i>
19 Ostirale.	s. Bizente P.	19 Astelehen.	s ^a Filomena.
20 Neskanegun.	s. Filibert.	20 Asteharte.	s. Bernat.
21 Igante. 8.	s ^a <i>Pratseda.</i>	21 Astizken.	s. Julien Lesk.
22 Astelehen.	s ^a M. Madalena	22 Ostegun.	s. Ipolita.
23 Asteharte.	s. Apolinari.	23 Ostirale.	s. Filipe Ben.
24 Astizken.	s. Kristina.	24 Neskanegun.	J. BARFOL., ap.
25 Ostegun.	J. JAKOBE, ap.	25 Igante. 13.	s. <i>Louis erreg.</i>
26 Ostirale.	s ^a Aña.	26 Astelehen.	s. Zephirin.
27 Neskanegun.	s. Galatori.	27 Asteharte.	s. Zezair.
28 Igante. 9.	s. Nazari eta Zelze.	28 Astizken.	s. Agosti.
29 Astelehen.	s ^a Marta.	29 Ostegun.	J. Joh Lephom
30 Asteharte.	s. Abdon.	30 Ostirale.	s ^a Rosa.
31 Astizken.	s. Inazio Loiola	31 Neskanegun.	s. Remoun N.



BURUILA edo SETEMER

Eg. llab. dira oren 1 eta 3 laurdenez.




- ☿ a. l., 4ⁿ, arrastiriko or. 1 eta 23^m.
- g. h., 11ⁿ, goizeko 3^{or} eta 49^m.
- ☽ l. l., 18ⁿ, goizeko 7^{or} eta 55^m.
- ⊕ e. h., 26ⁿ, goizeko 11^{or} eta 35^m.

URRIETA

Eg. llaburtzen dira oren 1 eta erdiz.



- ☿ a. l., 3ⁿ, arratseko 8^{or} eta 48^m.
- g. h., 10ⁿ, arrastiriko or. 1 eta 41^m.
- ☽ l. l., 18ⁿ, goizeko 2^{or} eta 7^m.
- ⊕ e. h., 26ⁿ, goizeko 2^{or} eta 31^m.



- 1 **Igante.** 14. s. *Vizente*, Aph.
- 2 Astelehen. s. Estebe, erreg
- 3 Asteharte. s. Lizier.
- 4 Astizken. s. Taurin.
- 5 Ostegun. s. Laurens J.
- 6 Ostirale. s. Onesifore.
- 7 Neskanegun. s. Rena.
- 8 **Igante.** 15. A. D. M. SORTZ.
- 9 Astelehen. s. Omer.
- 10 Asteharte. s. Nicolas T.
- 11 Astizken. s^a Eujenia.
- 12 Ostegun. s. Gi.
- 13 Ostirale. s. Maurillo.
- 14 Neskanegun. D^{na} *Khurutze*.
- 15 **Igante.** 16. A. M. D. *Izens*.
- 16 Astelehen. s. Ziprien.
- 17 Asteharte. s. Fr^{en} Zauriak.
- 18 Astizk. *IV Th.* s. Josef Kup.
- 19 Ostegun. s. Janvier.
- 20 Ostir. *IV Th.* s. Eustache.
- 21 Nesk. *IV Th.* s. MATHIU, Eb.
- 22 **Igante.** 17. A. D. M. *Dolor*.
- 23 Astelehen. s^a Thekla.
- 24 Asteharte. A. B. *Librazala*.
- 25 Astizken. s. Firmin.
- 26 Ostegun. s. Tomas Vill.
- 27 Ostirale. s. Kosme eta Dam.
- 28 Neskanegun. s. Etsupere.
- 29 **Igante.** 18. J. MIGEL, ARK.
- 30 Astelehen. s. Jeronimo.

- 1 Asteharte. s. Remi.
- 2 Astizken. *Ainguru Begir*.
- 3 Ostegun. s. Venzeslaz.
- 4 Ostirale. s. FRANZES As.
- 5 Neskanegun. s^a Aura.
- 6 **Igante.** 19. Arosar. Besta.
- 7 Astelehen. s^a Fide.
- 8 Asteharte. s^a Brijita.
- 9 Astizken. s. Denis.
- 10 Ostegun. s. FranzesBorj.
- 11 Ostirale. s. Sabin.
- 12 Neskanegun. s^a Domnina.
- 13 **Igante.** 20. A. D. M. Amatarz.
- 14 Astelehen. s. Kalista.
- 15 Asteharte. s. Teresa.
- 16 Astizken. s. Beltran.
- 17 Ostegun. s^a Edvijs.
- 18 Ostirale. s. LUK Ebanj.
- 19 Neskanegun. s. *Grat*, Olor.
- 20 **Igante.** 21. A. D. M. Chabutarz
- 21 Astelehen. s^a *Ursula*.
- 22 Asteharte. s. Petiri, Alk.
- 23 Astizken. s. Leotade.
- 24 Ostegun. s. *Rafael*, ark.
- 25 Ostirale. s. Krispi.
- 26 Neskanegun. s. Evarista.
- 27 **Igante.** 22. A. D. M. Patroun.
- 28 Astelehen. s. SIMON, ap.
- 29 Asteharte. s^a Eusebia.
- 30 Astizken. s. Kazien.
- 31 Osteg. *Barour*. s. Zirizio.

AZAROUA

Egunak llaburtzen dira oren 1³.



- ☿ a. l., 2ⁿ, goizeko 3^{or} eta 38^m.
- g. h., 9ⁿ, goizeko 2^{or} eta 5^m.
- ☽ l. l., 16ⁿ, arratseko 10^{or} eta 46^m.
- ☾ e. h., 24ⁿ, arrastiriko 4^{or} eta 13^m.

ABENTIA edo NEGILA

Eg. llaburtzen dira 27^{min}, 22^{no}.



- ☿ a. l., 1ⁿ, goizeko 11^{or} eta 5^m.
- g. h., 8ⁿ, arrastiriko 5^{or} eta 7^m.
- ☽ l. l., 16ⁿ, arratseko 8^{or} eta 7^m.
- ☾ e. h., 24ⁿ, goizeko 4^{or} eterdituⁿ.
- ☿ a. l. 30ⁿ, arratseko 8^{or} eta 12^m.

- 1 Ostirale.
- 2 Neskanegun.
- 3 **Igante.** 23.
- 4 Astelehen.
- 5 Asteharte.
- 6 Astizken.
- 7 Ostegun.
- 8 Ostirale.
- 9 Neskanegun.
- 10 **Igante.** 24.
- 11 Astelehen.
- 12 Asteharte.
- 13 Astizken.
- 14 Ostegun.
- 15 Ostirale.
- 16 Neskanegun.
- 17 **Igante.** 25.
- 18 Astelehen.
- 19 Asteharte.
- 20 Astizken.
- 21 Ostegun.
- 22 Ostirale.
- 23 Neskanegun.
- 24 **Igante.** 26.
- 25 Astelehen.
- 26 Asteharte.
- 27 Astizken.
- 28 Ostegun.
- 29 Ostirale.
- 30 Neskanegun.

- DONISANTORE.
- Purg. Arimak.*
 - s. Sever.*
 - s. Charles Bor.
 - s. Zakaria.
 - s. Léonart.
 - s. Florent.
 - 4 Khoroaikiak.
 - s. Teodoro.
 - Elizen Sakr.*
 - J. MARTINE.
 - s. Marti.
 - s. Stanizlaz K.
 - s. Josafat.
 - s. Jertruda.
 - s. Edmon.
 - s. Gregori, Taum.
 - s. Odon.
 - s^aElisabet, H^{er}.
 - s. Felis Valesi.
 - A. B. PRESENT^{ia}
 - s^a Zezila.
 - s. Klement.
 - J. Johane Kh
 - s^a Katalina.
 - s. Pierra Al.
 - s. Virjile.
 - s. Sostena.
 - s. Saturnin.
 - J. ANDREU, Ap.

- 1 **Igante.**
- 2 Astelehen.
- 3 Asteharte.
- 4 Astizken.
- 5 Ostegun.
- 6 Ostirale.
- 7 Neskanegun.
- 8 **Ig.** *Abent.* 2^a.
- 9 Astelehen.
- 10 Asteharte.
- 11 Astizken.
- 12 Ostegun.
- 13 Ostirale.
- 14 Neskanegun.
- 15 **Igante.**
- 16 Astelehen.
- 17 Asteharte.
- 18 Astiz. *IV Th.*
- 19 Ostegun.
- 20 Ostir. *IV Th.*
- 21 Nesk. *IV Th.*
- 22 **Igante.**
- 23 Astelehen.
- 24 Asteharte.
- 25 Astizken.
- 26 Ostegun.
- 27 Ostirale.
- 28 Neskanegun.
- 29 **Igante.**
- 30 Astelehen.
- 31 Asteharte.

- ABENTUKO 1^a.
- s^a Bibiana.
 - s. *Franzes Xav.*
 - s^a Barbara.
 - s. Sabas.
 - s. Nikolas.
 - s. Ambrosi.
 - A. B. KONZEPZ.
 - s. Jeronze.
 - s^a Eulalia.
 - s. Daniel.
 - s. Melkiade.
 - s^a Luzia.
 - s. Paule Khur.
 - Abentuko 3^a*
 - s. Euzebio.
 - s. Lazaro.
 - s. Gazieñ.
 - s. Urbain.
 - s^a Julia.
 - s. TOMAS, Ap.
 - Abentuko 4^a*
 - s. Flavien.
 - s^a Delf Barour.
 - EGUBERRI.
 - J. EZTEBE, m.
 - J. JOHANE, Eb.
 - Haor Inozent.
 - s. Tomas, Kant.
 - s. Sabin.
 - s. Silvestre.

OURTHEKO HAROAK :

- BEDATSIA hasten da martchoko 20^{an}.
- UDA hasten da arramaiazteko 21^{an}.
- LARRAZKENA hasten da buruilako 23^{an}.
- NEGIA hasten da abentuko 22^{an}.

MERKHATIAK ETA FEIRAK EDO BAKHIAK

MAOLEN : m., asteharte oroz ; f., buruila 6ⁿ ; abentu 10^{ta} landanko astehartian. — ATHARRATZEN : m., astelehenez, amousetik ; f., Phentekoste biharamenian *eta* Donisantore ondoko astelehenian. — DONA JOANE GARAZIN : m., asteleh. amous ; f., Bazko *eta* Phentekoste ondoko astehartian. — DONA PALEUN : m., ostir., amoust. ; f., Bazko ondoko ostegunian, *eta* abentuko 26ⁿ. — GARRUZEN : m., ostir. amoust. ; f., agorrila 1ⁿ *eta* azaroko lehen astizkenian. — IRISARIN : m., neskaneg., amoust., f., baranthail. 3ⁿ *eta* aphiril. 15ⁿ. — AHAZPARNEN : m., asteh., amoust. ; f., Bazko ondoko astizk. — IZOURAN : m., asteh., amoust. — NAVARENKOSEN : m., astizk. ; f., Erramu aitzineko astizkⁿ, *eta* abentu 8ⁿ. — ORTHEZEN : m., asteh. ; f., martchoko *eta* urrietako lehen astehⁿ. — OLOKOUN : m., ostir. *eta* asteh. ; f., maiatz. 1ⁿ ; *eta* buruila 8ⁿ, hirour eg. — PAOBEN : m., astel. *eta* osteg., f., Gorozum. lehen astelehⁿ, *eta* Jaondona Martinez, 8 eg. — SALIESEN : m., ostegunez ; f., baranth. heren astizkⁿ *eta* urrietako azken ostegunian. — SALBATARREN : m., neskanegunian.





AZAROUA


Egunak llaburtzen dira oren 1³.

- ☿ a. l., 2ⁿ, goizeko 3^{or} eta 38^m.
 ● g. h., 9ⁿ, goizeko 2^{or} eta 5^m.
 ☽ l. l., 16ⁿ, arratseko 10^{or} eta 46^m.
 ☾ e. h., 24ⁿ, arrastiriko 4^{or} eta 13^m.

ABENTIA edo NEGILA

Eg. llaburtzen dira 27^{min}, 22^{no}.

- ☿ a. l., 1ⁿ, goizeko 11^{or} eta 5^m.
 ● g. h., 8ⁿ, arrastiriko 5^{or} eta 7^m.
 ☽ l. l., 16ⁿ, arratseko 8^{or} eta 7^m.
 ☾ e. h., 24ⁿ, goizeko 4^{or} eterditⁿ.
 ☿ a. l. 30ⁿ, arratseko 8^{or} eta 12^m.



1 Ostirale.	DONISANTORE.	1 Igante.	ABENTUKO 1 ^a .
2 Neskanegun.	<i>Purg. Arimak.</i>	2 Astelehen.	^{sa} Bibiana.
3 Igante. 23.	<i>s. Sever.</i>	3 Asteharte.	<i>s. Franzes Xav.</i>
4 Astelehen.	<i>s. Charles Bor.</i>	4 Astizken.	^{sa} Barbara.
5 Asteharte.	<i>s. Zakaria.</i>	5 Ostegun.	<i>s. Sabas.</i>
6 Astizken.	<i>s. Léonart.</i>	6 Ostirale.	<i>s. Nikolas.</i>
7 Ostegun.	<i>s. Florent.</i>	7 Neskanegun.	<i>s. Ambrosi.</i>
8 Ostirale.	4 Khoroaatiak.	8 Ig. Abent. 2 ^a .	A. B. KONZEPZ.
9 Neskanegun.	<i>s. Teodoro.</i>	9 Astelehen.	<i>s. Jeronze.</i>
10 Igante. 24.	<i>Elizen Sakr.</i>	10 Asteharte.	^{sa} Eulalia.
11 Astelehen.	J. MARTINE.	11 Astizken.	<i>s. Daniel.</i>
12 Asteharte.	<i>s. Marti.</i>	12 Ostegun.	<i>s. Melkiade.</i>
13 Astizken.	<i>s. Stanizlaz K.</i>	13 Ostirale.	^{sa} Luzia.
14 Ostegun.	<i>s. Josafat.</i>	14 Neskanegun.	<i>s. Paule Khur.</i>
15 Ostirale.	<i>s. Jertruda.</i>	15 Igante.	<i>Abentuko 3^a</i>
16 Neskanegun.	<i>s. Edmon.</i>	16 Astelehen.	<i>s. Euzebio.</i>
17 Igante. 25.	<i>s. Gregori, Taum.</i>	17 Asteharte.	<i>s. Laza'o.</i>
18 Astelehen.	<i>s. Odon.</i>	18 Astiz. <i>IV Th.</i>	<i>s. Gazieñ.</i>
19 Asteharte.	^{sa} Elisabet, Hig ^r .	19 Ostegun.	<i>s. Urbain.</i>
20 Astizken.	<i>s. Felis Valesi.</i>	20 Ostir. <i>IV Th.</i>	^{sa} Julia.
21 Ostegun.	A. B. PRESENT ^{ia}	21 Nesk. <i>IV Th.</i>	<i>s. TOMAS, Ap.</i>
22 Ostirale.	^{sa} Zezila.	22 Igante.	<i>Abentuko 4^a</i>
23 Neskanegun.	<i>s. Klement.</i>	23 Astelehen.	<i>s. Flavién.</i>
24 Igante. 26.	J. Johane Kh	24 Asteharte.	^{sa} Delf. <i>Barour.</i>
25 Astelehen.	^{sa} Katalina.	25 Astizker.	EGUBERRI.
26 Asteharte.	<i>s. Pierra Al.</i>	26 Ostegun.	J. EZTEBE, m.
27 Astizken.	<i>s. Virjile.</i>	27 Ostirale.	J. JOHANE, Eb.
28 Ostegun.	<i>s. Sostena.</i>	28 Neskanegun.	Haor Inozent.
29 Ostirale.	<i>s. Saturnin.</i>	29 Igante.	<i>s. Tomas, Kant.</i>
30 Neskanegun.	J. ANDREU, Ap.	30 Astelehen.	<i>s. Sabin.</i>
		31 Asteharte.	<i>s. Silvestre.</i>



OURTHEKO HAROAK :

BEDATSIA hasten da martchoko	20 ^{an} .
UDA hasten da arramaiatzeko	21 ^{an} .
LARRAZKENA hasten da buruilako	23 ^{an} .
NEGIA hasten da abentuko	22 ^{an} .




MERKHATIAK ETA FEIRAK EDO BAKHIAK

MAOLEN : **m.**, asteharte oro; **f.**, buruila 6ⁿ; abentu 10^{ik} landanko astehartian. — ATHARRATZEN : **m.**, astelehenez, amousetik; **f.**, Phentekoste biharamenian *eta* Donisantore ondoko astelehenian. — DONA JOANE GARAZIN : **m.**, asteleh. amous.; **f.**, Bazko *eta* Phentekoste ondoko astehartian. — DONA PALEUN : **m.**, ostir., amoust.; **f.**, Bazko ondoko ostegunian, *eta* abentuko 26ⁿ. — GARRUZEN : **m.**, ostir. amoust.; **f.**, agorrila 1ⁿ *eta* azaroko lehen astizkenian. — IRISARIN : **m.**, neskaneg., amoust., **f.**, baranthail. 3ⁿ *eta* aphiril. 15ⁿ. — AHAZPARNEN : **m.**, asteh., amoust.; **f.**, Bazko ondoko astizk. — IZOURAN : **m.**, asteh., amoust. — NAVARENKOSEN : **m.**, astizk.; **f.**, Erramu aitzineko astizkⁿ, *eta* abentu 8ⁿ. — ORTHEZEN : **m.**, asteh.; **f.**, martchoko *eta* urrietako lehen astehⁿ. — OLOROUN : **m.**, ostir. *eta* asteh.; **f.**, maiatz. 1ⁿ; *eta* buruila 8ⁿ, hirour eg. — PAOBEN : **m.**, astel. *eta* osteg., **f.**, Gorozum. lehen astelehⁿ, *eta* Jaondona Martinez, 8 eg. — SALIESEN : **m.**, ostegunez; **f.**, baranth. heren astizkⁿ *eta* urrietako azken ostegunian. — SALBATARREN : **m.**, neskanegunian.





E direngia



I. Joana d'Ark dohatsia	97
II. Zer diren eskoletako legiak mundian.....	107
III. Elizaren zuzenak	111
IV. Igantiaren haostiaz.....	115
V. Istoría eta erasi.....	116

